

ATARIKO PROBA

3.HE

- 1.- *Lan egoerak bultzatuta, gazteek gurasoen etxea gero eta beranduago uzten dutenez,*
 - a) arinago lortzen dute etorkizuneko asmoak gauzatzeko.
 - b) etorkizuneko proiektuak asko murrizten zaizkio gazte askori.
 - c) errazagoa da gazte askorentzat euren etxebizitza eskuratu arren.
 - d) gurasoen etxean bizitzeko aukera baztertu egiten baitu gazte askok.

- 2.- Zein da ZUZENA?
 - a) Bata bestearengandik ez dute zerikusi handirik, oso desberdinak dira.
 - b) Autoa zaharra da eta matxurak bata besteari atzetik ditu.
 - c) Bata bestearekiko aurkeztu ondoren ekingo diogu bilerari.
 - d) Batak besteari egia aitortuta ere, oraindik haserre jarraitzen dute.

- 3.- *Udaleko itzultzaileak lanean ari dira, oso goiz etorri baitira gero arinago irteteko.*
 - a) honezkero
 - b) artean
 - c) ordurako
 - d) dagoeneko

- 4.- *Hainbat animalia espezie galtzeko arriskuan dago, eta ez badugu ezer egiten, handia izango da naturarentzat.*
 - a) kenketa
 - b) galera
 - c) aurkari
 - d) erruki

- 5.- *Hezkuntzako profesionalen dagokie aldaketarako proposamenak bultzatzea, ikastetxeetan berdintasunaren gaia lehentasunezkoa izan dadin. Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?*
 - a) Ikastetxeetan lehenagoko gaia da berdintasunarena, horregatik bultzatu behar dute profesionalak.
 - b) Berdintasunaren gaia aldatzeko, ikastetxeetan profesionalak aldaketarako proposamenak bultzatu behar dituzte.
 - c) Profesionalak aldatzeak lehentasunezko gaia izan beharko luke ikastetxeetan berdintasuna lortzeko.
 - d) Ikastetxeetan berdintasunaren gaiari lehentasuna emateko, profesionalak proposatu behar dituzte aldaketak.

- 6.- *Oporrak neure antolatzea gustatzen zait, horrela nahi dudan guztia egiteko aukera izaten dut.*
- a) buruz
 - b) eskura
 - c) esker
 - d) kabuz
- 7.- Nola deritzo nekeak edo larrialdiak eramankorrago egiten dituenari?
- a) Tamalgarria.
 - b) Jasangarria.
 - c) Aringarria.
 - d) Adierazgarria.
- 8.- *'Teledana' terminoak zuzeneko edo zeharkako komunikazioen bidez enpresatik kanpo lan egitea adierazten du, hau da,*
- a) enpresan bertan burutu beharko da lana.
 - b) datuek erakusten dutenez, langintza hori ez dago oso hedatua.
 - c) zenbait tokitan telezentroak antolatzearen lana hobeto egiteko.
 - d) lanak eragiten dituen joan-etorriak komunikazioek ordezkatzeko dituzte.
- 9.- *Bileren aktak idaztean, ahalegin berezia egin, ulergarriak gerta*
- a) zenuke / dadin.
 - b) zenezake / dakizkigun.
 - c) liteke / ditzaten.
 - d) lukete / dakizkien.
- 10.- *Bizilagun bakoitzak kilo bat hondakin sortzen du eguneko. Beste herrialde batzuekin alderatuta, kopuru oso altua izan ez arren, goranzko joera argia da. Zer esan nahi du esaldi horrek?*
- a) Beste herrialdeetan ere hondakinak sortzen direnez gero, hondakinen kopurua gorantz doala.
 - b) Beste herrialde batzuetan baino hondakin gutxiago sortzen dugula, baina areagotzen doala.
 - c) Sortutako hondakinen kopuruak beste herrialdeekin alderatzeko, hondakinek gorantz egin behar dutela.
 - d) Hondakinen kopurua beste herrialdeetan sortzen dena baino altuagoa izanik ere, ez dutela uste gorantz egingo duenik.

- 11.- *Uraren Munduko Foroak eskaintzen duen aukeraz dira ur eskasiak ekar ditzakeen arriskuez hitz egiteko eta irtenbideak aurkitzeko.*
- a) zuzenduko
 - b) bilduko
 - c) baliatuko
 - d) ebatziko
- 12.- *Komunikabideek dutenez, aurtengoa izan da aspaldiko urteetako udarik beroena.*
- a) aditzera eman
 - b) uko egin
 - c) iritzia eman
 - d) denbora egin
- 13.- *Gai horren inguruko nazioarteko legedia eskatu dute hainbat herrialdetako presidentek berriki egindako biltzarrean.*
- a) bateratzeko
 - b) mailegatzeko
 - c) errukitzeko
 - d) iruditzeke
- 14.- *Zenbaiten ustez, giza eskubideak hutsaren hurrengo dira hainbat herrialdetan. Zer esan nahi du esaldi horrek?*
- a) Batzuen ustez, giza eskubideek ezer gutxi balio dutela zenbait tokitan.
 - b) Zenbaiten ustez, giza eskubideak akatsez josita daudela leku batzuetan.
 - c) Leku batzuetan ez dakitela giza eskubideen definizioa zein den.
 - d) Zenbait tokitan giza eskubideak ez direla lehengoak.
- 15.- Zein da ZUZENA?
- a) Lankide batekin hasi naiz ingelesez hitz egitera, ez ahazteko.
 - b) Beranduago joango naiz, hurrei jaten eman behar diet eta.
 - c) Ez daukat afaltzea gogorik, tripetako minez nabil.
 - d) Lehen ez bezala, orain mendira joateari asko gustatzen zait.
- 16.- *Herrialde garatuetan gizentasuna gaixotasun arrunta bihurtzen ari da,*
- a) demagun, gero eta pertsona argal gehiago ikus daitekeela.
 - b) horregatik, elikadura orekatua izatea ez da hain garrantzitsua.
 - c) bizitzeko ohiturek eta ariketa fisiko urriak eraginda.
 - d) modu batera edo bestera jendeak dieta egin nahi duelako.

17.- Zein da ZUZENA?

- a) Haurra ondo jaio dela ikusteak negar eragin nau.
- b) Hotz naizenean, zopa beroak hobeto sentiarazten dit.
- c) Medikua, ni hobeto aztertzeko, ohean etzanarazi zidan.
- d) Azterketa berriro eginaraziko zigula esan zigun irakasleak.

18.- Zein da ZUZENA?

- a) Oso interesgarria da liburua, zuk eman didazula.
- b) Honako hau da lehenago aipatu dizut diskoa, oso ona da.
- c) Herenegun egin genituenak dira aurkitzen ez ditudan txostenak.
- d) Behin baino gehiagotan gomendatu didazuna dokumentala ikusi dut.

19.- *tristea pelikula hori, inolaz ere zinemara joatea gomendatzen.*

- a) Hain da / ez dizudanez
- b) Baita / ez baitizut
- c) Hain da / non ez dizudan
- d) Non da / ez dizudala

20.- *Arduradunak..... zehatzen arabera antolatu ditu lan-taldeak, lana hobeto bideratzeko.*

- a) ordain
- b) eginkizun
- c) azalera
- d) agintera

21.- Hurrengo esaldietan ortografia akats bat dago. Zeinetan?

- a) Ausardia handia du, batzuetan zoratuta dagoela ematen du.
- b) Herria jendetsua da, baina gure hauzoa oso lasaia da.
- c) Hemendik urrun samar dago zerbitzuburuaren bulegoa.
- d) Txoriek habia leiho handiaren ondoan egin zuten.

22.- *Ikastetxea berdintasunean hezteko leku egokia da;, dena ez dago irakasleen esku, gizarteak eta familiak zeregin garrantzitsua dute jarreraren aldaketan.*

- a) hori dela eta
- b) baita ere
- c) alabaina
- d) esaterako

- 23.- Jarraitu elkarrizketa:
– *Bihar eguraldi ona izango al dugu mendira joateko?*
–
- a) A zer nolako mendia!
 - b) Elurra dakar, antza!
 - c) Neuk baneki zer egingo dudan!
 - d) Hau da hau eguraldia!
- 24.- Sinonimo bikote hauetatik zein dago ONDO?
- a) Garapena / argibidea.
 - b) Antzeman / erabili.
 - c) Eragozpena / salbuespena.
 - d) Erantzukizuna / ardura.
- 25.- *Ekaitza hasi zenean, mendian geunden, baina heldu ginen etxera.*
- a) egurretan / onik
 - b) egurretara / on
 - c) egurretatik / onak
 - d) egurretarako / onetan
- 26.- *Nolako betekada! Hurrengoan zeuk etorri beharko duzu gurera, afaltzera gonbida*
- a) diezazuket.
 - b) zaitzadan.
 - c) nakizun.
 - d) zaitezke.
- 27.- *Mota guztietako erakundeek dute etorkinen egoera salatzeko datorren astean egingo den manifestazioarekin.*
- a) aintzat hartu
 - b) bat egin
 - c) esku hartu
 - d) zalantzan jarri

28.- *Ezin dizut lagundu, ez daukat horretarako, nagusiarengana jo beharko duzu.*

- a) lehiakortasunik
- b) eskumenik
- c) erabilpenik
- d) zainketarik

29.- Zein da ZUZENA?

- a) Maiatzeko 7an greba egingo dutela adierazi dute langileek.
- b) Ahalik eta arinen bukatzeko esan digu, gehienez jota, urtarrilaren 3rako.
- c) Eskabideak aurkezteko epea etzi, abendua 5, bukatuko da.
- d) Uda honetan, abuztuko 11tik iraileko 5era, denda itxita egongo da.

30.- Zein da ZUZENA?

- a) Eguraldiak txarrera egingo balu, baliteke ibaiak gainezka egingo duela.
- b) Arduradunak esandakoaren arabera, lan ordutegia moldatzekotan ari direla.
- c) Antza denez, gobernuaren asmoa gazteek alokatzeko etxebizitzak egitea da.
- d) Gaur egun, badirudi jaiotza-tasa gorantz doa Euskal Autonomia Erkidegoan.

31.- *Sexuen arteko parekotasuna lortzeko egiten diren aurrerapenak oso mesedegarriak izan daitezke sexu indarkeria saihesteko.*
Zein da esaldi horren BALIOKIDEA?

- a) Sexuen arteko berdintasunean aurrera egitea probetxugarria izan daiteke sexu indarkeriaren aurka.
- b) Sexu indarkeriari aurre egiteko, sexuen arteko berdintasuna lortzea ez da onuragarria.
- c) Sexuen arteko parekotasuna saihesteko, mesedegarria izango litzateke aurrerapenak lortzea.
- d) Sexu indarkeria baztertzeko, balio gutxi dute sexuen arteko parekotasuna lortzeko egin diren aurrerapenak.

32.- *Etxea erosteko diru askoko mailegua eskatu zuen banketxean, eta azkenean ezin izan zuen*

- a) zorra berdindu.
- b) topo egin.
- c) kontuan izan.
- d) kale egin.

- 33.- *Botika generikoak besteak bezain dira, eta Gobernuz Kanpoko Erakundeetako ordezkariak horiek erabiltzearen alde dira emandako prentsaurrekoan.*
- a) kutsagarriak / hedatu
 - b) ohikoak / suntsitu
 - c) eraginkorrak / agertu
 - d) kaltegarriak / erantsi
- 34.- *Oporretan atzerrira bazoaz, bertakoen ohiturak onartu behar dituzu, badakizu:*
- a) Itsuen artean begibakarra nagusi!
 - b) Zofoak beleari ipurbeltz!
 - c) Ohiturarik ez daukanarentzat, lan guztiak zailak!
 - d) Gorostian gorosti, Donostian Donosti!
- 35.- *Igeltseroek astebete beharko dute bulegoa behar den bezala txukuntzeko.*
- a) inguru
 - b) antzean
 - c) aldean
 - d) gisa
- 36.- *Web-orrian, jadanik, badaude datorren ikasturtearen*
- a) nondik norakoak.
 - b) bertan beherakoak.
 - c) aldi berekoak.
 - d) bien bitartekoak.
- 37.- *..... Itzul iezadazu oraintxe bertan lapurtu didazun sakelako telefonoa!*
- a) Lotsagabetuta hori!
 - b) Lotsagabea zarela!
 - c) Lotsagabe alaena!
 - d) Lotsagabea izango zara!

- 38.- *Nolako sua sortzen den, halako su-itzalailua erabili behar da;, su guztiak ez dira mota berekoak.*
- a) izan ere
 - b) horregatik
 - c) batez beste
 - d) aitzitik
- 39.- Jarraitu elkarrizketa:
– *Nagusiak langileen dirua aldean hartuta ihes egin du!*
–
- a) Egitea zeukan!
 - b) On dagizula!
 - c) Ez da izango!
 - d) Bene-benetan!
- 40.- *Langabeen artean enplegua neurriak prestatzen ari dira.*
- a) sustatzeko
 - b) batzeko
 - c) eraikitzeko
 - d) sakabanatzeko
- 41.- *Aspalditik ematen ditu euskaraz bikoiztutako pelikulak, marrazki bizidunak zein dokumentalak.*
- a) ETBek
 - b) ETBak
 - c) ETB
 - d) ETBk
- 42.- *Profesional ugari hartu du parte ikerketan: fisikariek, biologoek... Gaiarekiko interesa duten profesionalek,*
- a) hots.
 - b) bestetik.
 - c) bat-batean.
 - d) oro har.
- 43.- *Ezin zara hain zorrotza izan, jokatu beharko zenuke ingurukoekin.*
- a) latzago
 - b) ziurrago
 - c) ozenago
 - d) malguago

44.- *Gure sailera etorri berria, arazoak izan zituen lankideekin.*

- a) bazen
- b) izatekotan
- c) zela
- d) izanez gero

45.- Zein da ZUZENA?

- a) Urte eta leku berean ezkondu ginen idazkaria eta biok.
- b) Lana bukatu gabe utzi du iturginak, beste ordutan etorriko dela esan du.
- c) Mendi tontorreraino igo ginen eta hotza itzela bat pasatu genuen.
- d) Bulegoko lanaz aparte, igeltserotzat dabil bere koinatuarekin.

ORDEZKO GALDERAK

46.- *Norbaitek ezezko botoa eman, aho batez onartuko dugu datorren urterako aurrekontua.*

- a) heinean
- b) ezean
- c) bezala
- d) izan ezik

47.- *Ariketa ondo egiteko, irudiei definizioak aurkitu behar ziren minutu batean.*

- a) ziharduten
- b) zebiltzan
- c) zegozkien
- d) zeramatzan

48.- *Unibertsitateko ikerlari horien lan-..... giza genoma ikertzea da.*

- a) emaitza
- b) zatikia
- c) isuna
- d) eremua

ATARIKO PROBA - 3.HE

ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

1.	B	2.	D	3.	D	4.	B	5.	D
6.	D	7.	C	8.	D	9.	B	10.	B
11.	C	12.	A	13.	A	14.	A	15.	B
16.	C	17.	D	18.	C	19.	C	20.	B
21.	B	22.	C	23.	B	24.	D	25.	A
26.	B	27.	B	28.	B	29.	B	30.	C
31.	A	32.	A	33.	C	34.	D	35.	A
36.	A	37.	C	38.	A	39.	C	40.	A
41.	D	42.	D	43.	D	44.	C	45.	A

ORDEZKO GALDERAK

46.	B	47.	C	48.	D
-----	----------	-----	----------	-----	----------